

## **2013KO AZAROAREN 25EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita bosta.

**HILABETEA:** Azaroa.

**URTEA:** Bi mila eta hamahirua.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatziak laurden gutxi.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2013ko urriaren 21eko aktaren onespena.

2013ko urriaren 21eko aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), esan du aktan ez dela jasotzen Usurbe antzokiaren ustiapen-puntuarekiko berak esandakoa, hain zuzen ere, proposamen ekonomikoari beste esleipen-irizpideei adinako puntuak ematea ekarri lezakeen ondorio ez zuzena, hots, proposamen merkeena egiten duen lizitatuak lehiaketa eraman dezake, mugatu ez delako gutxieneko prezioa zein izan behar den eta horren ondorioa zerbitzuaren kalitatea murriztea izan daiteke.

Garbiñe Zurutuza andreak (BILDU), esan du, zinearen ustiapena digitalizazioarekin batera kontratatu nahi izan zenean, prezioaren eskaintzari puntuak emateko kopuru minimo bat ezarri zela, ezarritako minimoaren azpitik aurkeztutako eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuz, baina kasu hartan horrela egin zela kontratatzen ziren bi helburuen betetze-maila bermatzeko.

**2.- LOKALAREN EROSKETA.** Igartza Oleta, 12an dagoen lokala erostea.

Ezagutzera eman da, Alkatearen proposamena:

**“Gaia: lokala erostea**

## AURREKARIAK

Gaur egun, Udalak Igartza Oleta 12ko lokala alokatuta dauka eta bertan lau gela egokituta daude Seaska Hartzaindegiarentzat. Lokala 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera alokatuta dago eta sei gela dauden Ikasleen Zeharkakaleko eraikinarekin batera, Haurreskola Partzuergora atxikita daude. Gauza da, gela horiek denak behar direla udalerriri hartzaindegi zerbitzua eskaintzeko. Hori guztia, 2013ko urriaren 16an Haurreskola Partzuergoarekin sinatutako Hitzarmen-eranskinaren arabera.

URBANA: Número cincuenta y dos.- Local señalado con la letra D de la planta baja, perteneciente al edificio señalado con el número dieciocho (hoy 12) de la calle Ferrerías de Igartza (hoy Igartza Oleta), de Beasain. Es el de la derecha de los que se encuentran a la derecha del portal, según se mira a la fachada principal del edificio. Ocupa una superficie de ciento cuarenta y cuatro metros y ochenta y siete decímetros cuadrados. Linda: norte, fachada posterior del edificio y local letra C de la misma planta; Sur, porción segregada que se vende a D. José María Urdangarín y otra, y fachada principal que mira a la calle Ferrerías de Yarza; Este, muro lateral derecho; y Oeste, porción segregada que se vende a D. José María Urdangarín y otra, y local letra C de esta planta. Le corresponde una cuota de participación de tres enteros y ochenta y seis centésimas de entero por ciento.

Udal arkitektoak, 191.390,23 €tan baloratzen du.

Lokalen prezioa, 60.100 €koa baino gehiago denez, Gobernu Batzordeari dagokio erosketa burutzeko baimena ematea.

Horren ondorioz, Hazienda Batzordeak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Aurea González Pinto andrearen, M<sup>a</sup> José Blanco González andrearen, Alberto Blanco González jaunaren eta M<sup>a</sup> Luisa Blanco González andrearen den eta aurrekarietan deskribatu den lokala erostea, EHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EUROko (190.000,00 €) prezioan.

**Bigarren.** Eskritura eta erregistroko gastuak, Udalaren kontura izango dira. Gainbalioari buruzko zerga, saltzaileen kontura izango da.

**Hirugarren.** Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.”

Alkate jaunak (BILDU): “Lokal hau orain arte alokatuta zegoen, baina alokairu-kontratua amaitzear dago eta gaur egun lokala haurreskolarako

erabiltzen da eta erabiltzen jarraitu behar da. Hori izan da, lokala erostea proposatzeko arrazoia.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- BEASAINGO BIDE PUBLIKO JAKIN BATZUETAN IBILGAILUAK APARKATZEA KONTROLATZEKO, MUGATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA:**

- Plegu administratiboa nahiz teknikoa onartzea.
- Lizitazioaren deialdi publikoa.

Antolakuntza batzordeak proposatuta, ezagutzera eman da, Beasaingo bide publiko jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke, zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeke baldintza plegu tekniko eta administratiboa.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) esan du aldaketa txiki batzuk sartuko lituzkeela pleguan, baina ez ditu zehaztu eta horren ondorioz, plegua aurkeztu den moduan geratzen da.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE), proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (EAJ, H1)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** Beasaingo bide publiko jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzua kudeatzeko emakidaren lehiaketa bidezko kontratazioan bete behar diren preskripzio teknikoaren eta administratiboen plegua onartzea.

**Bigarren.** Deialdi publikoa egitea, zerbitzua prozedura irekiaren bitartez kontratatzeke.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 165.290 € BEZ kanpo.

4.- *Egikaritze epea*: 4 urte beste 2 urtez luzatzeko aukerarekin.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak*:

- a) Finantza erakundeen adierazpen egokiak edo, hala dagokionean, arrisku profesionalengatik kalte-ordainak emateko aseguru bat izatearen egiaztagarria..
- b) Kontratuaren xede diren lanetan azken hiru urteetan izandako esperientzia egiaztatzeke agiriak aurkeztu beharko dira.

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredu*a: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- a) Udalarri eskainitako baldintza ekonomikoak: 51

Eskaintzaren puntuazioa=  $\frac{\text{gehiengo puntuazioa} \times \text{gutxieneko eskaintza}}{\text{Baloratzen den eskaintza}}$

- b) "Bai euskarari" edo Bikain ziurtagiriak: 5 puntu.
- c) Kudeaketa proiektua: 24 puntu.
- d) Antolaketa-kudeaketaren proiektua: 10 puntu.
- e) Hobekuntzak: 10 puntu.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatuzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

#### **4.- PROIEKTUA ALDATZEA.**

- Beasaingo bizikleta bide sarearen ardatz nagusiari I. faseari dagozkion lanen proiektua aldatzea eta aipatutako obren esleipen kontratua aldatzea.

Ezagutzera eman da, 2013ko urriaren 28an, hirigintza batzordeak proposatutako, Beasaingo bizikleta bide sarearen ardatz nagusiaren I. faseari dagozkion lanen proiektua aldatzea eta horrek dakarren aipatutako obren esleipen kontratua aldatzea.

Proposamena honetan datza:

### **“AURREKARIAK**

**I.-** 2013ko maiatzaren 23an, Gobernu Batzordeak bizikleta bide sarearen ardatz nagusiari dagokion (I eta III faseak), 2013ko apirilko data duen eta ASTAZALDI ARK S.L.Pk idatzitako proiektua onartu zuen. Obrak lizitatzeko baldintza plegu administratiboa ere onartu zen eta dagokion deialdia ere egin zen, baina 2013ko ekainaren 17an Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren bidez baliorik gabe utzi zen lizitazio prezioan akatsa zegoelako

**II.-** Akats hori zuzendu eta gero, berriro lizitaziorako deialdia egin zen, 253.368,62 € BEZ kanpo prezioan. Prezio horren sailkapena, faseekiko ondorengoa zen:

- I fasea: 164.361,81 €
- III fasea: 89.006,80 €

**III.-** Prozedura izapidetu ondoren, kontratua Excavaciones Gabika, S.L.ri esleitu zitzaion, pleguaren I Eranskinean berak eskainitako prezioan, hau da, 149.086,03 €tan + BEZ (bi faseak barne), nahiz eta berak aurkeztutako aurrekontu desglosatuan, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua ondorengoa izan:

- I Ekitaldia: 94.112,20 €
- III Ekitaldia: 54.610,68 €

**III.-** Jarraian ordea, Joan XXIII kaleko bizilagunen eskariak aintzakotzat hartuz, erabaki da, eta horrela adierazi du 2013ko urriaren 28an egindako hirigintza batzordeak, eremu horretako trafikoaren ordenazioan aldatzea egitea, hau da:

- J. M. Iturriotz kalean norabide bikoitza mantentzen da, CAFeko porteria parean ibilgailuak txandaka pasatzeko semaforoak ezarriz.

- Galtzadaren hegoaldeetik bizikletentzako bidea mantentzen da, txirringularen jarraipena eta erosotasuna bermatuz eta egungo oinezkoen baldintzak murriztu gabe. Are gehiago, hobetu egiten dira.
- Hegoaldeko espaloian egiten den aldaketa bakarra, 1. zatian handitzen dena, honetan datza: Olanan eraikin parean dagoen parkerantz oinezkoen pasabidea pixka bat desbideratzen da, kaleko 2 zatiko ezaugarri fisikoak direla medio.

**IV.-** Horrek guztiak, Excavaciones Gabika, S.L. obren esleipendunarekin sinatutako kontratuaren aldaketa Dakar, hau da:

- I. I. ekitaldiaren proiektuaren aldaketak, suposatzen du proiektuaren aurrekontuan 15.029,42 €ko gehikuntza dagoela, hots, 164.361,81 €ko aurrekontua izatetik, 179.391,23 €ko aurrekontua izatera pasatzen da.

Esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren arabera, proiektuaren I. ekitaldiaren kostua, 94.112,20 €tik a 100.408,18 €ra pasatzen da.

Hori guztia, honekin batera doan eta udal aparejadoreak sinatutako dokumentuaren arabera. Bertan, jasotzen dira elkarrekin alderatuta, aurrekontua osatzen duten kapituluak eta kopuruak proiektuarenak, esleitutakoarenak eta oraingo gehikuntzarenak.

**VI.-** Esku artean dugun kontratua arautzen duen baldintza pleguaren 11. artikulua, ondorengoa adierazten du: *“Kontratuan ematen diren moldapenek bertan agertzen ez diren laneko unitate berriak sartzea eragiten dutenean, moldapen horien prezioak Kontratazio Organoak finkaturikoak izango dira eta kontratistak onartzen ez badu, Kontratazio Organoak beste enpresari batekin kontratatu ahaliko ditu finkatuko lituzkeen prezio beretan edo berak egin ahal izango ditu zuzen-zuzenean.”*

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Bizikleta bide sarearen ardatz nagusiari dagokion I fasearen proiektuaren aldaketa onartzea, kontrata egikaritze aurrekontua, hau da, BEZ kontutan izan gabe, 179.391,23 € izanik.

**Bigarren.** 2013-10-10ean EXCAVACIONES GABIKA, S.L.rekin sinatutako kontratua aldatzea eta horren ondorioz, Administrazioak ordaindu beharreko kopurua, ondorengoa izango da: **155.018,86 €** (100.408,18+54.610,68).

**Hirugarren.** Erabaki honen berri kontratistari ematea (Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 108 eta 211 artikuluen arabera), hiru laneguneko epean idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita proposatutako prezioen eta bide batez kontratuaren aldaketari buruz dagokiona esan dezan, ohartaraziz ontzat eman ezkerro behin betiko bermea doitu egin beharko dela, aldatutako prezio berriarekin behar duen proportzioa gordetzeko ((Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 99.3 artikulua).”

CANTIDAD				PRECIO			IMPORTES					
PROYECTO	AMPLIACIÓN	DIFERENCIA		PROYECTO	OFERTA	AMPLIACIÓN	PROYECTO			OFERTA GABINA		
		ABSOLUTA	%=10%				RESTO	FASE I	FASE I	FASE I	OFERTA - AMPLIACIÓN	OFERTA
							PROYECTO	P. AMPLIACIÓN	OF. PROYECTO	OFERTA adjudicada	OFERTA - AMPLIACIÓN	OF. OFERTA
							7.486,51	12.301,97	4.845,46	4.970,65	7.315,29	2.344,64
							3.984,25	3.983,32	119,97	2.676,00	2.772,92	96,92
							1.945,44	1.945,44	0,00	573,76	573,76	0,00
							10.048,23	10.048,23	0,00	5.414,79	5.414,79	0,00
							1.968,16	1.968,16	0,00	860,64	860,64	0,00
							522,72	522,72	0,00	286,88	286,88	0,00
							1.945,44	1.945,44	0,00	573,76	573,76	0,00
							9.483,06	9.483,06	0,00	5.290,58	5.290,58	0,00
							1.945,44	1.945,44	0,00	573,76	573,76	0,00
							15.446,94	18.208,86	2.761,92	11.999,41	14.255,00	2.256,39
							22.130,96	32.954,86	9.923,90	9.138,73	10.855,05	1.716,31
							20.988,37	27.318,80	6.330,43	11.997,67	16.372,53	4.374,87
							37.955,10	26.214,08	-11.341,02	19.995,73	13.597,34	-6.408,39
							873,65	873,65	0,00	873,65	873,65	0,00
							4.632,00	4.632,00	0,00	4.269,02	4.269,02	0,00
							659,20	659,20	0,00	659,20	659,20	0,00
							902,02	902,02	0,00	902,02	902,02	0,00
							132.160,62	144.810,39	12.629,77	73.452,36	78.743,10	5.290,74
							7.966,87	7.966,87	0,00	6.703,89	6.703,89	0,00
							139.247,49	151.877,26	12.629,77	80.156,25	85.446,99	5.290,74
							26.114,32	27.513,97	2.399,66	13.955,95	14.961,19	1.005,24
							164.361,81	179.391,23	15.029,42	94.112,20	100.408,18	6.295,98
							34.915,98	37.672,16	3.156,18	19.763,56	21.085,72	1.322,16
							198.877,79	217.063,39	18.185,60	113.875,76	121.493,89	7.618,14

(\*) NOTA: Los importes calculados en la columna RESALTADA EN AMARILLO, son el resultado de multiplicar las unidades de obra del proyecto con la ampliación por los precios unitarios de la oferta adjudicada a GABINA. El ÚNICO PRECIO CONTRADICTORIO (NUEVO) corresponde al capítulo I, Demoliciones, que corresponde a la partida de "Corte de Baldosa hidráulica" y se da por bueno el mismo, al coincidir el de la oferta con el precio del proyectista.

AGUSTIN PEREZ DE  
NANCLARES  
CASTELRUIZ

Beasain, 21 de noviembre de 2013  
El Aparejador Municipal

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## 5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatzia eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.